

ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA TXANTILIOIA

Ikastetxea	Arrigorriaga BHI	Kodea	015072	Ikasturtea	2025/2026
Etap	Batxilergoa	Zikloa/maila	2		
Arloa/ Jakintzagaia/ Eremua	Jarduera fisikoa, aisia eta osasuna	Irakasleak	Dani Fernandez		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxeko proiektuak, aurreko ikasturteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Ikasleen abiapuntua

Heziketa Fisikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan eta batxilergoko lehenenengo mailan lantzen den jakintzagaia da eta ikasgai honekin lotura zuzena duena. Aurreko ikasturteetako lanari eta ikaskuntza-prozesuari esker, ikasleek funtsezko konpetentzia guztiak landuko dituzte. Hautazko ikasgaia izanik, interesa duten ikasleak izango ditugula aurreikusten da.

Aurreko ikasturteetan ikasleek izan dituzten balorazioak aintzat hartuko ditugu ikasleen abiapuntua ezagutzeko. Hala ere, ikasleen artean aniztasuna izango da nagusi eta taldeak ezingo dira maila zehatz batean kokatu. Izan ere, taldeetan gaitasun fisiko eta trebetasun motor maila desberdinak aurkituko ditugu, eta gainera, lantzen ditugun eduki edo kirolen arabera ere maila ezberdinak egongo dira. Horregatik, ikasleen desberdintasunak aintzakotzat hartuko dira, bakoitzaren gaitasunak eta mugak kontuan hartuz, ikasleen beharrei eta ezinegonei erantzuna emateko. Horretarako, desberdintasun fisikoak, motibazio-aniztasuna eta sentsibiltateak kontuan hartuko dira, baita osasun-arazoak, desberdintasun sozialak edo taldean integratzeko zailtasunak ere.

Ikasleek DBHn landutako konpetentzia espezifikoei eta oinarrizko jakintzei jarraipena emango zaie.

Ikasgelaren testuingurua

Ikasleei aurkeztutako proposamenek ikaslearen ingurune sozialarekin lotura izango dute, Arrigorriagako testuingurua kontutan hartuz, eguneroko bizimoduan aplikatu eta erreproduzitu ditzakeen praktikak eta ariketa fisikoak eskaintzeko. Bestalde, ikasleek ezagutzen ez dituzten proposamen berriak ere txertatuko dira, ondoren beren jarduera sozialean modu autonomoan arobetxa ditzaten, aisialdian, hain justu.

Beraz, testuinguruaren alde aurreko azterketa egin ostean, programazio honetan proposatzen diren jarduerak ikasleetatik gertu dauden egoerak izango dituzte abiapuntu, beraien interesei erantzuteko. Izan ere, ikasleek edukiak baliagarriak direla sentitu behar dute, funtzionaltasuna eta aplikagarritasuna ikusi behar diete eskolatik kanpo ere, eta, halaber, erakargarri eta motibatzaile direla iruditu behar zaie.

Horretarako, ikasleek eguneroko bizimoduan egiten dituzten kirolak kontuan izango ditugu, eta telebistan, aldizkarietan edo sareetan zer interesatzen zaien jakitea ere garrantzitsua izango da. Batez ere, ezinbestekoa izango da haiekin hitz egitea, beraien zaletasunez, aspirazioez eta motibazioez arduratzea, hau da, ikas-egoerak hasi baino lehen, beraien iritzia jakitea, jardueren aukeraketan parte hartzeko aukera emonez. Honi esker, ikasleen interesguneetatik gertu dauden ikas-egoerak diseinatu edo egokituko ditugu, gustuko dituzten jardueretatik abiatuta.

Ikastetxeko proiektuak

Agenda 30: ikastetxearen iraunkortasun eta kalitaterako hezkuntza programa honen bidez hezkuntza komunitatea tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizatu eta honen aldeko jarrerak eta konpromisoak hartzen dira. Agenda 30eko helburuetan oinarrituta garatu behar ditugu ikas-egoerak ahal den neurrian.

Hizkuntza Normalkuntza: Hizkuntza normalkuntza proiektuaren helburuekin bat eginez, euskararen erabilera eta kalitatea bermatzeko ahalegin berezia egingo da. Ikasleek ahoz zein idatziz modu koherentean eta egokian jarduteko ariketak eta jarduerak landuko dira ikasturtean zehar.

Aurreko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak

Aurreko ikasturteetan ez dugu izan ikasgai hau zentruan, beraz, ez dugu izango mota honetako erreferentziarik.

Ikasleen aniztasunari erantzuteko programazioaren jarduerak eta materialak IDU printzipioetara egokituko dira. Horrela, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua maila desberdinetara egokituko da.

Bestalde, ikasle askok euskeraz mintzatzeko arazoak dituzte. Hori dela eta, ahozkotasuna lantzeko jarduerak ere antolatuko dira.

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, IKT baliabideak, etab.

Estrategiak eta metodoak

Ikasleek zeregin aktiboa izango dute, eta irakaslea bitartekaria izango da. Ikasleei sortzeko, parte hartzeko eta komunikatzeko aukera emango zaie. Espazioa, denborak eta taldeak beharren arabera antolatuko dira, eta lankidetza sustatuko da une oro, ingurune seguru bat sortuz.

Curriculumean ezartzen diren konpetentzien garapena sustatzeko metodologiaren inguruko alderdi hauei erreparatu beharko zaie:

Ikasleek zeregin aktiboa izango dute, haiek direlako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatza. Hau horrela izanda, irakaslea bideratzaile edo bitartekari bihurtzen da, ikasketa prozesuan laguntzeko. Ondorioz, ikaste prozesuan ikasleen autonomia sustatuko da, ikasleei ikaskuntza prozesuan parte hartzeko aukera anitzak emonez. Gehienbat, ikasketa kooperatiboa eta talde lana sustatuko da ikas egoera eta jardueretan, elkarri laguntzeko beharra pizten eta lankidetza eta parte hartzea bultzatuz. Horrela, ikasle guztien partaidetza sustatuko da, balio etikoetan oinarrituta gure klaseak ingurune seguruak direla bermatzeko, justizia eta besteeiko errespetua landuz eta diskriminazioa ekidituz.

Hizkuntzen trataera

Ikastetxean hizkuntza desberdinak erabiltzen dira eta hauetan ikasleak konpetenteak izatea da helburua. Gure arloan, euskarari ematen diogu garrantzia batez ere maila gehienetan. Hala ere, 1.DBH eta 2. DBHko Osasun fisiko eta emozionala arloa ingelesez ematen da proiektu eleanitzaren parte bezala eta ingelesaren erabilera eta ezagutza bultzatuko da. Ikasle askok arazoak dituzte, bai irakurtzen dutena ulertzeko bai esan nahi dutena azaltzeko ere. Hau horrela izanda, Normalkuntza proiektuaren helburuekin bat egingo du gure arloak eta euskararen erabilera

eta ezagutza bultzatuko da. Gainera, ez dugu ahaztu behar curriculumak zehazten dituela etapa bukaeran ikaslearen irteera profilean hizkuntza-komunikazio konpetentzia eta konpetentzia eleanitza lortzeko, jakintzagaiak egin beharreko ekarpenak (deskriptore operatiboetan zehazten direnak). Beraz, hauek bermatzeko ikaskuntza-egoera eta atazak diseinatuko dira.

Etaparen bukaeran ikaslearen irteera profilean zehaztutako hizkuntza-komunikazio konpetentzia eta konpetentzia eleanitza lortzeko, jakintzagaiak egin beharreko ekarpenak (deskriptore operatiboetan zehazten direnak) bermatzeko dituen ikaskuntza-egoera eta atazak diseinatuko dira.

IDU

Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren (IDU) printzipioak erabiliko ditugu sortzen zein erabiltzen ditugun materialetan. Printzipio berak aplikatuko ditugu, ahal den neurrian, guk ikasleei eskatuko dizkiegun ebaluazio tresnetan zein atazetan. Asmoa, gure ikasleen aniztasuna aintzat hartuz banakako ikaskuntza-estilo propiora egokitzea da ikaskuntza-ingurune malguak eraikiz, eurek ikasteko daukaten era zein den inporta gabe, ikaskuntza prozesuan aurrera egin dezaten. Hortaz, atazak eta ikaskuntza egoerak diseinatzean, ezinbestekoa izango da printzipio horiek buruan izatea eta alderdi hauek errespetatzea:

-Askotariko inplikazio moduak eskaintzea (zergatik ikasten da?).

-Askotariko irudikatze moduak eskaintzea (zer ikasten da?).

-Askotariko ekintza eta adierazpen moduak eskaintza (nola ikasten da?).

Ikasleen eta irakasleen antolamendua

Jardueren arabera ikasleak modu askotan egongo dira antolatuta: bakarka, binaka, hirunaka edo talde txiki edo handiagoetan batu daitezkeelarik. Irizpide orokor gisa, taldeak egiteko garaian heterogeneotasuna bilatuko da. Hala ere, hainbatetan ikasgela exekuzio edota abilezia mailaren arabera ere antolatuko dugu, baita interesen, eta abarren arabera ere.

Bestalde, Heziketa Fisikoko irakasleen artean koordinazioa egongo da une oro, eta proiektu interdisziplinarietan parte hartzerakoan beste mintegietako irakasleekin ere koordinatuko gara.

Espazioen eta baliabideen erabilera

Gimnasioa, frontoia, patioa, futbol zelaia eta atletismo pista izango dira gehien erabiliko diren espazioak. Ikasgela ere, momentu konkretuetan

aukera ona izan daiteke ataza batzuk burutzeko, baita gure ondoan dagoen Mendikosolo ingurunea.

Baliabideei dagokionez, Heziketa Fisikoko kirol materiala erabiliko da batez ere. Horretaz gain, irakasgaiaren alderdi teorikoak lantzeko baliabide digitalak ere erabiliko dira. Azkenik, ikasturtean zehar egiten diren txangoak ere aipatu behar dira, natur jarduerak lantzeko ezinbestekoak baitira.

IKT erabilera

Ikasgelan digitalizazioa ikaskuntza-prozesuak garatzeko elementu lagungarria izango da. Izan ere, hainbat ataza garatzeko plataforma izateaz gain informazio iturri zein erraminta bezala ere erabil daitezke digitalizazioak eskaintzen dituen proposamenak. Era berean, ebaluazioan zein komunikazioan ere berebiziko garrantzia izango dute teknologia-berriek. Espezifiki, lizentzia libreko materialaren aldeko apostua egingo dugu Creative Commons bezalako lizentziak erabiliz eta beraz egungo legeak errespetatuz izaera publikoa duten elementu guztietan.

Curriculum erabakiak	
Funtsezko konpetentziak	Oinarrizko irakaskuntza bukatzean zehazten den ikasleen irteera-profilean jasotzen diren funtsezko konpetentziak honako hauek dira: • Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (HKK). • Konpetentzia eleaniztuna (KE). • Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia (STEM). • Konpetentzia digitala (KD). • Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII). • Herritartasunerako konpetentzia (HK). • Ekintzailtza-konpetentzia (EK). • Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia (KAKK).

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak
KE1. Gaur egungo gizartean aisia eta jarduera fisikoa ulertzeko moduak analizatzea, bizi-kalitatean dituzten ondorioekin erlazionatuz eta ohitura osasungarrien funtsezko alderdiak identifikatuz, bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duen bizimodu aktiboa eta osasungarria hartzeko beharrarekin konprometitzeko. <i>Deskriptore operatiboak: HKK5, STEM5, PSIIK1.2, HK1 eta HK3.</i>	1.1. Jarduera fisikoek ongizate fisiko, afektibo eta sozial-erlazionalerako eskaintzen dizkiguten ekarpenak baloratzea eta esperimentatzea, aisialdiaren antolaketan kontuan hartuz. 1.2. Jarduera fisikoaren gizarte-eskaintza analizatzea eta baloratzea, aisiaren, osasunaren eta bizi-kalitatearen kontzeptuei buruz hausnartuz eta jarrera kritikoa erakutsiz jarduera fisikoak eta kirolak gaur egungo gizartean duten tratamenduaren aurrean. 1.3. Ikastetxean jarduera fisikoa antolatzen eta sustatzen parte hartzea, kirol- eta/edo jolas-ekitaldi baten antolaketaren elementuak analizatuz eta eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra esplizituki sustatuz. 1.4. Kirol-erakunde baten sorkuntza, antolaketa eta funtzionamendua ulertzea, ingurune hurbileko kirol-elkarteak analizatuz. 1.5. Jarduera fisikoarekin erlazionatutako lesioak sendatzeko neurri espezifikoak ezagutzea eta modu arduratsu eta autonomoan aplikatzea, baita lehen sorospinak aplikatzea ere, lehen eta bigarren mailako balorazio-protokoloak barneratuz.
KE2. Askotariko barne- eta kanpo-logikako egoera motorretan moldatzea, norberaren eta besteen esku-hartzea baloratuz eta berregokituz, ekintza-plan indibidual eta kolektibo landuak modu autonomoan sortzeko. <i>Deskriptore operatiboak: HKK5, KE1, PSIIK1.1, PSIIK1.2, PSIIK3.2, HK1,</i>	2.1. Jarduera artistiko-espresiboen, jokoaren eta kirolen sorta zabal batean aktiboki parte hartzea, egindako esku-hartzea baloratuz eta hobekuntza-proposamenak planteatuz. 2.2. Akzio-plan landuak modu autonomoan sortzea, zeregin motorraren eskakizunak eta parte-hartzaileen ezaugarriak eta inguruabarrak analizatuz.

<i>HK4, KKAK3.2, KKAK4.1 eta KKAK4.2.</i>	
KE3. Esparru motorreko esku-hartze didaktikoak diseinatzea, aplikatzea eta ebaluatzea, esku-hartzearen xede diren pertsonen ezaugarrien eta premien analisitik abiatuta, irakatsi eta ikasteko prozesu motorraren funtsezko elementuekin ohitzeko. <i>Deskriptore operatiboak: HKK5, STEM2, PSIIK1.2, PSIIK5 eta EK3.</i>	3.1. Egoera motorrak haien barne- eta kanpo-logikatik analizatzea, zeregin motorrak hautatuz eta aldatuz eta esku-hartze didaktikoaren premietara egokituz. 3.2. Sekuentzia didaktiko motorrak diseinatzea eta zuzentzea, esku hartzeko estrategiak eta estiloak baloratuz eta prozesua eta emaitzak ebaluatuz.
KE4 - Egoera fisikoa planifikatzea eta kudeatzea, entrenamendu-legeak eta -printzipioak aplikatuz eta jarduera fisikoarekin erlazionatutako lanbideetan edo ikasketetan sartzeko proba fisikoak analizatuz, norberaren edo hirugarrenen baldintza- eta koordinazio-gaitasun fisikoak eraginkortasunez garatzen laguntzeko. . <i>Deskriptore operatiboak: KD3, PSIIK1.1, PSIIK1.2, EK1 eta EK3.</i>	4.1. Giza gorputzaren egitura eta funtzionamendua identifikatzea eta ulertzea, organismoa ariketa fisikora egokitzeko oinarriko fenomenoak eta elikadura osasungarriaren garrantzia analizatuz. 4.2. Ezaugarri eta premia pertsonaletara egokitutako eta egoera fisikoaren alde aurreko analisis oinarritutako egokitze fisikorako oinarriko programa bat diseinatzea eta gauzatzea. 4.3. Jarduera fisikoarekin erlazionatutako irtenbide akademiko eta profesional posibleak baloratzea, sarbide-betekizunak, ibilbideak eta lanbide-garapeneko esparruak analizatuz.
KE5 Portaera arduratsuak eta errespetuzkoak garatzea, giro positiboa, espiritu ekintzailea, sormena, autonomia, ekimen pertsonala, talde-lana eta zentzu kritikoa bultzatuz, gizarteratze emankorra ahalbidetuko duten balioak eta jarrerak sustatzeko eta ondasun naturalak eta soziokulturalak kontserbatzeko.	5.1. Bizikidetzako balioak eta jarrerak sustatzea, ikasgelako eta ikastetxeko giro onaren mesedetan, autonomia, ekimen pertsonala eta zentzu kritikoa erakutsiz. 5.2. Natura- eta hiri-ingurunearen kontserbazioan laguntzea, praktika motorrek sor dezaketen ingurumen-inpaktua minimizatuz eta jarrera ekoarduratsua erakutsiz.

Deskriptore operatiboak: HKK5, KE1, STEM5, PSIIK2, PSIIK3.1, HK2, HK3 eta HK4.	5.3. Material autoeraikiak sortzea eta erabiltzea, ingurunearen ikuspegi ekoiraunkor eta komunitario batetik jardunez. 5.4. Planteatutako dinamika eta jardueretan aktiboki parte hartzea, emozioak eta gizarte-harremanak behar bezala kudeatzuz.
--	--

Curriculumaren plangintza			
Unitatearen / Ikas-egoeraren izenburua	Konpetentzia espezifikak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak (Ikus. 1. eranskina)
Lehen hiru hilekoa			
1. Talde kohesio, erronka kooperatiboak (4) 2. Jarduera fisikoa, ariketa fisikoa eta ongizatea (2) 3. Egoera fisikoaren neurketa (4) 4. Entrenamenduaren printzipioak (1) 5. Entrenamendu metodoak (Ahozkoztatuna) (6) 6. Jarduera gidatuak: zumba, bodycombat, bodypump, GAP... (4) 7. Igeriketa oinarriak ezartzen (6) 8. Natur inguruneke kirol jarduerak: Surfa (1)	KE1, KE2, KE4, KE5	1.1 / 1.2 / 1.3 / 2.1 / 2.2 / 4.1 / 4.2 / 5.1 / 5.2 / 5.3 / 5.4	• Oinarrizko kontzeptuen analisia: jarduera fisikoa, ariketa fisikoa, egoera fisikoa, osasuna eta bizi-kalitatea. • Ariketa fisikoa erregulartasunez egiteak sasoiaren eta osasunaren gainean dituen ondorio positiboak eta arriskuak. • Organismoa ariketa fisikora egokitzeko oinarrizko fenomenoak. • Entrenamendua erregulatzen duten printzipioak eta legeak. • Oinarrizko baldintza- eta koordinazio-gaitasun fisikoak. • Gaitasun fisikoak entrenatzeko sistemak. • Entrenamenduaren diseinua • Egoera fisikoaren ebaluazioa proba objektiboen bidez.. • Premia pertsonaletara egokitutako egokitze fisikorako programa baten diseinua. • Egoera psikomotorrak. • Oposizioke, kooperazioke eta oposizio-kolaborazioke egoera soziomotorrak. • Kirol-jarduera fisikoen plangintza eta antolaketa. • Ia jokoak, kirolak, joko tradizionalak eta egoera didaktikoak. • Ziurgabetasuna duen inguruneke egoera motorrak.

Bigarren hiruhilekoa

1. Igeriketa adituak (8)
2. Natur inguruneko kirol jarduerak: eskia eta snow-a. (1)
3. Egoera fisikoaren neurketa (3)
4. Lehen sorospenak eta Jarduera fisikoarekin erlazionatutako lesioak sendatzeko jarraibideak (6)
5. Entrenamenduaren diseinua eta plangintza (2)
6. Nutrizioa eta publizitatearen azterketa kritikoa (4)
7. Jarduera fisikoaren anatomi-fisiologia (4)
8. Kirol jarduerak: egokituak, alternatiboak, kirol modernoak, material autoeraikiak (8)

KE1,KE2, KE4,
KE5,

1.1 / 1.2 / 1.3/ 4.1 /
4.2 / 5.1 / 5.2 / 5.4 /

- la jokoak, kirolak, joko tradizionalak eta egoera didaktikoak.
- Egoera fisikoaren ebaluazioa proba objektiboen bidez..
- Entrenamenduaren diseinua
- Premia pertsonaletara egokitutako egokitze fisikorako programa baten diseinua.
- Jarduera fisikoarekin erlazionatutako lesioak sendatzeko jarraibideak.
- Lehen sorospenetako oinarritzko maniobrak egiteko eta jarduteko oinarritzko irizpideen aplikazioa: lehen eta bigarren maila ko balorazioa.
- Elikadura-ohiturei buruzko analisia eta hausnarketa, eta elikadura orekatura zuzendutako jarduera fisikoaren araberako dieten diseinua.
- Ariketa fisikoaren anatomia eta fisiologia.
- Autoeraikuntza eta materialen birziklatzea.
- Kirola gaur egungo gizartean: kontzeptua, bilakaera eta adierazpideak (ikuskizun-kirola, lehiakorra, hezigarria, egokitua, jolas modukoa...)
- Ziurgabetasuna duen inguruneko egoera motorrak..

Hirugarren hiru hilekoa			
1. Gorputz adierazpena eta emozioen kudeaketa: dramatizazioa, dantzak (euskal zein internazionalak), erlaxazio teknikak(6) 2. Eskalada (1) 3. Entrenametauren diseinua, jarraipena eta balorazioa. (8) 4. Txirrindularitza (4) 5. Irtenbide profesional ezberdinetarako sarbide probak. (3) 6. Orientazioa (4) 7. Kirol egunaren antolaketa (4)	KE1,KE2, KE3 KE4, KE5,	1.1 / 1.2 / 1.3 / 1.4 / 1.5 / 2.1/ 2.2/ 3.1 / 3.2 / 4.1/ 4.2/ 4.3/ 5.1 / 5.2 / 5.4	- Jarduera fisiko artistiko-espresiboak. - Egoera psikomotorrak. - Ziurgabetasuna duen inguruneke egoera motorrak. - Entrenamenduaren diseinua. - Egoera fisikoaren ebaluazioa proba objektiboen bidez. - Jarrera, erlaxazioa eta arnasketa bezalako ohitura osasungarriekin erlazionatutako jarduerak. - Gure ingurunean egin daitezkeen kirol edo jarduera fisiko posibleen gizarte-eskaintza.

<u>Ebaluazioari, kalifikazioari eta hauen ondorioei buruzko erabakiak</u>
Ebaluazioa <i>Ebaluazioaren helburua, denborak, eragileak, teknikak, tresnak eta erremintak.</i> Ebaluazioa hezitzailea izango da. Ebaluazioak ikasleen aurrerapenak identifikatzera eta ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezke. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak ere ebaluatuko dira. Ebaluazioa konpetentziak ebaluatzen zuzenduko da (ez oinarritzko jakintzak ebaluatzen). Konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak izango dira ikaskuntza-prozesuen erreferente. Ikastetxearen autonomiaren barruan eta ikasgelaren ezaugarriei erantzuna emateko, ebaluazio-irizpideak egokitu dira. Ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzakoa da. Ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da eta ez soilik bukaeran. Irakasle-taldeak, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren.

Ebaluazio eragileak: autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Ebaluazio tresnak eta erremintak: askotariko ebaluazio tresnak erabiliko dira, ikasleen ezaugarri eta premia indibidualetara egokituz (aurkezpenak, galdetegiak, iruzkinak, frogak, ekoizpenak, audioak, bideoak...). Ebaluazio erremintei dagokienez, kontrol zerrendak, errubrikak, balorazio eskalak, etab, erabiliko ditugu.

Lesionatuak: Egunean parte hartzen ez dutenak edota epe labur/luzeko lesioa izanez gero, driveko behaketa fitxa osatu beharko dute edota irakaslearekin adostuta egin beharreko lan bat (egunerokoa, txostena, dossierra...) .

Asistentziari dagokionez, gutxieneko etortzeari balioa emateko asmoarekin (ehuneko batera ez ailegatuz gero, idatzizko lan edo azterketa baten bitartez ebaluatu beharko litzaioke)):

9-10 SAIOKO IKAS EGOERA: 4 SAIORA EZ ETORTZEA

7-8 SAIOKO IKAS EGOERA: 3 SAIORA EZ ETORTZEA

6 SAIOKO IKAS EGOERA: 2 SAIORA EZ ETORTZEA

Aldatzeko arropak ekartzea derrigorrezkoa da eta kirol arroparik ez ekartzeak ondorioak dakartza:

Higieneak %10eko pisua hiruhilabete bakoitzeko. Material falta bakoitzak 0,3 puntu gutxiago izatea suposatuko du.

Kalifikazioa

Kalifikazio-irizpideak: konpetentzien ponderazioa, ebaluazio-irizpideen ponderazioa eta ebaluazio-irizpideen jardun-maila

Arlo, jakintzagai, eremu edo proiektu globalizatuetakoko ikaskuntzen kalifikazioa kasuan kasuko konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideen arabera egingo da. Disziplinarreko proiektuetan barne hartzen diren konpetentzia espezifikokoak eta ebaluazio-irizpideak definitu beharko dira, eta horiek izango dira ebaluazio eta kalifikaziorako erreferentzia.

Ebaluazio-irizpideen ponderazioan oinarriturik, konpetentzia espezifikoko bakoitzerako kalifikazioa lortuko da; eta hauek ponderatuz, ikasgaiarena.

Konpetentzia espezifikoa	%	Ebaluazio-irizpidea	%	Ebaluazio-irizpideen jardun-maila (ebaluazio-irizpidea gainditutzat emateko lortu beharreko minimoa)
KE 1	20	EI 1.1.	25	1.1. Jarduera fisikoek ongizate fisiko, afektibo eta sozial-erlazionalerako eskaintzen dizkiguten ekarpenak baloratzea eta esperimintatzea, aisialdiaren antolaketan kontuan hartuz.
		EI 1.2	20	1.2. Jarduera fisikoaren gizarte-eskaintza analizatzea eta baloratzea, aisiaren, osasunaren eta bizi-kalitatearen kontzeptuei buruz hausnartuz eta jarrera kritikoa erakutsiz jarduera fisikoak eta kirolak gaur egungo gizartean duten tratamenduaren aurrean.
		EI 1.3	20	1.3. Ikastetxean jarduera fisikoa antolatzen eta sustatzen parte hartzea, kirol- eta/edo jolas-ekitaldi baten antolaketaren elementuak analizatuz eta eskubide- eta aukera-berdintasun eraginkorra esplizituki sustatuz.
		EI 1.4	15	1.4. Kirol-erakunde baten sorkuntza, antolaketa eta funtzionamendua ulertzea, ingurune hurbileko kirol-elkarteak analizatuz.
		EI 1.5	20	1.5. Jarduera fisikoarekin erlazionatutako lesioak sendatzeko neurri espezifikoak ezagutzea eta modu arduratsu eta autonomoan aplikatzea, baita lehen sorospenak aplikatzea ere, lehen eta bigarren mailako balorazio-protokoloak barneratuz.
KE 2	20	EI 2.1	60	2.1. Jarduera artistiko-espresiboen, joken eta kirolen sorta zabal batean aktiboki parte hartzea, egindako esku-hartzea baloratuz eta hobekuntza-proposamenak planteatuz.

		EI 2.2	40	2.2. Akzio-plan landuak modu autonomoan sortzea, zeregin motorraren eskakizunak eta parte-hartzaileen ezaugarriak eta inguruabarrak analizatuz.
KE 3	20	EI 3.1	50	3.1. Egoera motorrak haien barne- eta kanpo-logikatik analizatzea, zeregin motorrak hautatuz eta aldatuz eta esku-hartze didaktikoaren premietara egokituz.
		EI 3.2	50	3.2. Sekuentzia didaktiko motorrak diseinatzea eta zuzentzea, esku hartzeko estrategiak eta estiloak baloratuz eta prozesua eta emaitzak ebaluatuz.potentziala aztertuz eta baloratuz.
KE 4	20	EI 4.1	40	4.1. Giza gorputzaren egitura eta funtzionamendua identifikatzea eta ulertzea, organismoa ariketa fisikora egokitzeko oinarritzko fenomenoak eta elikadura osasungarriaren garrantzia analizatuz.
		EI 4.2	40	4.2. Ezaugarri eta premia pertsonaletara egokitutako eta egoera fisikoaren alde zuzeneko analisiaren oinarritutako egokitze fisikorako oinarritzko programa bat diseinatzea eta gauzatzea.
		EI 4.3	20	4.3. Jarduera fisikoarekin erlazionatutako irtenbide akademiko eta profesional posibleak baloratzea, sarbide-betekizunak, ibilbideak eta lanbide-garapenerako esparruak analizatuz.
KE 5	20	EI 5.1	30	5.1. Bizikidetzako balioak eta jarrerak sustatzea, ikasgelako eta ikastetxeko giro onaren mesedetan, autonomia, ekimen pertsonala eta zentzu kritikoa erakutsiz.
		EI 5.2	30	5.2. Natura- eta hiri-ingurunearen kontserbazioan laguntzea, praktika motorrek sor dezaketen

				ingurumen-inpaktua minimi- zatuz eta jarrera ekoarduratsua erakutsiz.
		EI 5.3	20	5.3. Material autoeraikiak sortzea eta erabiltzea, ingurunearen ikuspegi ekoiraunkor eta komunitario batetik jardunez.
		EI 5.4	20	5.4. Planteatutako dinamika eta jardueretan aktiboki parte hartzea, emozioak eta gizarte-harremanak behar bezala kudeatuz.
				.

Ebaluazioaren ondorioak

Errefortzu-neurriak eta egokitzeko-neurriak, curriculum zabaltzeko eta aberasteko proposamenak, berariazko programatan parte hartzea

Ikasleek lortutako emaitzen analisiari buruzko ondorioetatik abiatuta, irakasleek neurriak ezarriko dituzte curriculumaren, antolamenduaren eta, bereziki, irakaskuntza-praktikaren esparruan. Errefortzua hainbat bidetatik etor daiteke: metodologia, ekoizpen edo ebaluazio irizpideen egokitzapenak, material gehiagarria edo Hedatze saioetara joatea, esaterako.

Berreskurapenetan, jarduera ezberdinak proposatuko dira. Ikasturteko lehenengo bi ebaluaketetan, ebaluazio irizpide ez-gainditu bakoitzeko errekurazio sistema eta gutxienezko edukiak zeintzuk diren eta noiz birebaluatuko diren zehatz-mehatz azalduko zaie ikasleei. Atal praktikoa berreskuratzeke, ohiko probetan bezalako froga bat egin beharko du. Jarrerazko edukietan, berriz, hurrengo ebaluaziokoak gainditu ezker, zuzen berreskuratuko dute. Azkenik, eduki teorikoen berreskurapenak azterketekin, idatzizko lanekin edo ahozko aurkezpenekin egingo dira.

Azkenik, ikasgaia ondo menderatzen dutela erakusten duten ikasleei eduki jakin batzuetan sakontzeko aukera emango zaie. Sakontze jarduerak anitzak izan daitezke: gaiarekin lotutako jardueretan edo eduki teorikoetan sakonduz, adibidez, kirola eskolaz kanpo eginez edo kirolarekin

zerikusia duten albiste eta dokumentaleen hausnarketak eginez.

Progamazioaren jarraipena eta ebaluazioa				
Ebaluatuko den alderdia		Indarguneak	Zailtasunak	Hobekuntza-proposamena
	Atazen eta material didaktikoaren diseinua.			
	Erabilitako baliabideen aukeraketa.			
	Irakaslearen eta ikasleen rolak.			
	IDU printzipioen aplikazioa.			
	Taldekatzeak eratzeko irizpideak.			

Erabaki metodologikoak	Egokitzapenak.			
	Espazioaren antolaketa.			
Ebaluatuko den alderdia		Indarguneak	Zailtasunak	Hobekuntza-proposamena
Antolaketa curricularra	Programazio-unitateen sekuentzia.			
	Programazio-unitateen antolaketa.			
	Konpetentzia espezifikoaren eta ebaluazio irizpideen arteko lotura.			
	Oinarrizko jakintzen antolaketa.			
Ebaluatuko den alderdia		Indarguneak	Zailtasunak	Hobekuntza-proposamena
	Erabilitako erremintak.			

Ebaluazioa eta kalifikazioa	Erabilitako tresnak.			
	Heteroevaluazioaren diseinua eta plangintza.			
	Errefortzu-neurriak egokiak izan dira.			

1.ERANSKINA (OINARRIZKO JAKINTZAK)

A) Jarduera fisikoa eta osasuna.	1.Oinarrizko kontzeptuen analisia: jarduera fisikoa, ariketa fisikoa, egoera fisikoa, osasuna eta bizi-kalitatea. 2.Bizi-kalitatearen kontzeptuaren bilakaera. 3.Ariketa fisikoa erregulartasunez egiteak sasoiaren eta osasunaren gainean dituen ondorio positiboak eta arriskuak. 4.Lehen sorospenetako oinarrizko maniobrak egiteko eta jarduteko oinarrizko irizpideen aplikazioa: lehen eta bigarren mailako balorazioa. 5.Jarduera fisikoarekin erlazionatutako lesioak sendatzeko jarraibideak. 6.Jarrera, erlaxazioa eta arnasketa bezalako ohitura osasungarriekin erlazionatutako jarduerak. 7.Mugikortasun iraunkorra.
---	--

B) Egokitze fisikoa	1.Ariketa fisikoaren anatomia eta fisiologia. 2.Organismoa ariketa fisikora egokitzeko oinarrizko fenomenoak. 3.Entrenamendua erregulatzen duten printzipioak eta legeak. 4.Oinarrizko baldintza- eta koordinazio-gaitasun fisikoak. 5.Gaitasun fisikoak entrenatzeko sistemak. 6.Entrenamenduaren diseinua. 7.Egoera fisikoaren ebaluazioa proba objektiboen bidez. 8.Premia pertsonaletara egokitutako egokitze fisikorako programa baten diseinua. 9.Elikadura-ohiturei buruzko analisia eta hausnarketa, eta elikadura orekatura zuzendutako jarduera fisikoaren araberako dieten diseinua.
C) Ludomotrizitatea	1.Egoera psikomotorrak. 2.Oposizioko, kooperazioko eta oposizio-kolaborazioko egoera sozomotorrak. 3.Ziurgabetasuna duen inguruneke egoera motorrak. 4.Jarduera fisiko artistiko-espresiboak. 5.la jokoak, kirolak, joko tradizionalak eta egoera didaktikoak. 6.Balio indibidualak, sozialak eta ingurumenekoak: joko garbia, talde-lana, norberaren gaineko konfiantza, arauetiko errespetua, parte-hartze demokratikoa, autonomia eta ekimen pertsonala, aniztasunarekiko errespetua, jokabide iraunkorrak eta ekologikoak. 7.Esfortzuaren eta hobetzeko grinaren aurreko erresilientzia eta jarrera positiboa.
D) Jarduera fisikoaren irakaskuntza, plangintza eta kudeaketa	1.Kirol-jarduera fisikoen plangintza eta antolaketa. 2.Heziketa fisikoarekin erlazionatutako akzio motorren zientziaren oinarrizko kontzeptuak. 3.Heziketa fisikoa: bilakaera historikoa, xedeak eta gaur egungo ikuspegiak. 4.Saio eta sekuentzia didaktiko errazen diseinua: helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa. 5.Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruko ikasketak eta irtenbide profesionalak eta sarbide-proba fisikoak.
E) Jarduera fisikoa eta kirola aisiaren gizartean.	1.Aisia eta astialdia: jarduera fisikoa gizartean. 2.Kirola gaur egungo gizartean: kontzeptua, bilakaera eta adierazpideak (ikuskizun-kirola, lehiakorra, hezigarria, egokitua, jolas modukoa...). 3.Kirol-erakundeak eta -instituzioak: Kirol Kontseilu Gorena, kirol-entitateak: federazioak, klubak, eskolako kirol-elkarteak... 4.Jarduera jakin batzuen ingurumenaren gaineko inpaktua eta ingurunea zaintzeko jarduketak. 5.Autoeraikuntza eta materialen birziklatzea.

	6.Gure ingurunean egin daitezkeen kirol edo jarduera fisiko posibleen gizarte-eskaintza. 7.Euskal unibertso ludikoa: jokoaren eta jolasaren kontzeptuak eta praktiken katalogoa. 8.Pierre de Coubertinen proiektu pedagogikoa eta gaur egungo olinpiar mugimendua: olinpiar jokoen bilakaera.
--	--